



UDALBILTZAREN KONTRAKO EPAIKETAREN LEHENENGO SAIOEN BALANTZEA

Amaitu dira uztailleko lehenengo lau saioak, eta irailaren 13an jarraituko du Espainiako Auzitegi Nazionalean Udalbiltzaren eta bertako hautetsi edo eta langile ziren 20 pertsonaren kontrako ahozko epaiketa (Miram Campos prozesu honetatik kanpo geratu da, epaitua izan baita dagoeneko, eta Xarlo Etxezaharreta ez dute momentuz epaituko, ez baita auzitegian azaldu). Gogoratu behar da ministerio fiskalak 10 eta 15 urte bitarteko espetxe zigorra eskatua duela pertsona horien aurka, eta Dignidad y Justicia elkarteak 15 eta 23 urte bitarteko zigorrak. Horrez gain, Udalbiltzaren, Udalbiltza Partzuergoaren eta Euskal Garapen eta Kohesio Funtsaren debekua eskatzen dute bi akusazioek, 20 auzipetuen inhabilitazioaz gain.

Orain artekoa baloratzera, auziperatuok honako ideiak eta datuak nabarmendu nahi genituzke:

- Ideia nagusi eta larri bat: Jarduera politiko publikoei buruz, mugaz gaindiko udalerrien arteko jarduera administratiboei buruzko azalpenak ematen ari gara auzitegi penal baten aurrean. Horrek argi erakusten du demokraziaren beraren lehenengo funtsa zigortu asmo duela Estatu espainolak: herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak dira udalak; demokraziaren oinarri-oinarrizko euskarri. Eta udalen zein udal hautetsien arteko borondateak batuta sortu zen Udalbiltza. Euskal Herri osoko udalerriak elkarlanerako eta herrigintzarako batuz. Hori demokrazia da, egoera puruan. Eta horixe ari da epaitzen, molde inkisitorial gogorrean, Espainiako estatua, auzitegi berezi honen bidez. Beraz, deliturik gabeko prozesamenduaren ostean, epaiketa inkisitoriala da hau, argi eta garbi.
- 'Dena ETA da' esamoldeak gidatutako prozesamendua da Udalbiltzaren kontrako hau ere. Baina oso argi esan beharra daukagu: epaiketan argi azaltzen ari da gezur handi batean oinarritu dela prozesamendu osoa. Hasi dira akusazioen lekukotzak ematen poliziak, eta noski, ez dute inolako frogarik ipini mahai gainean Udalbiltza eta ETA lotzeko. Noski, ez dena, ez delako. Berrero ere, teilatutik eraikitzen hasitako fartsa baten aurrean gaude, baina oinarri faltsuak erortzen ere hasi dira epaiketa hasi eta berehala.
- Oinarrizko eskubideak gauzatzea edo babestea da gure aurka dugun akusazio bakarra, hori egiaztatzea izan baita fiskaltzaren eta herri akusazioaren galdeketen xede nagusia. Estatu espainoleko legedian edota nazioarteko zuzenbidean jasotako oinarrizko eskubideen gauzapenei buruzko azalpenak eskatu dizkigute behin eta berrero, besteak beste, Udalbiltzaren jarduera bultzatzearen erantzule garen ala ez, hauteskundeetan parte hartzeari buruz edo naziotasun eskubidea babesteari buruz. Eskubide zibil eta politikoen kontrako epaiketa da hau. Auzipetuon eskubideak, eta Euskal Herriaren beraren eskubideak. Biltzeko eskubidea, herritarren ordezkari demokratiko izateko eskubidea, eta ordezkaritza horren arabera jarduera instituzionala aurrera eramateko eskubidea etenda geratu zaizkigu auzi honekin. Eta modu

kolektiboan, Euskal Herriak bere instituzioak modu demokratikoan sortu eta garatzeko daukan eskubidea ere zigor penalaren mehatxupean ipini dute.

Fiskaltza eta herri akusazioari buruz:

- Ministerio fiskalak eutsi egiten die zigor eskari lazgarriari. Benetako kezka bizi dugu hori auzipetuok. Udalbiltzaren sorrera eta jardura udal hautetsien borondateen baturaz egin zela estali nahian dabil fiskaltza, Udalbiltza ETaren aginduetara sortu eta garatu zela erakutsi nahian. Baina, esan bezala, horri eusteko ez du inolako frogarik edo argibiderik erakutsi.
- Are ulergaitzagoa da herri akusazioaren existentzia bera. Nortzuk izan dira, bada, Udalbiltzaren biktima edo kaltetuak? Epaiketa bidegabe baten atal absurdoenetakoa da herri akusazioaren existentzia bera.

Denbora ez da alperrik pasatzen. Bidegabekeriaren beste atal bat: 7 urteko alde aurretiko zigorrak.

- Zazpi urte eta hiru hilabete dira Udalbiltzaren kontrako eraso eta amesgaiztoa hasi zenetik. Atzerapen horrek, hasteko, justiziaren bidezotasuna bera zapaltzen du. Bestetik, alde aurretiko zigor pilaketa dakar. Gogoratu nahi dugu auzipetuetako askok, hamahiruk, atxiloaldia eta kartzela pairatu zutela Udalbiltzan jardutearren, eta gaur ere, zazpi urte baino gehiago igaro ondoren, behin-behineko zigorpean daudela. Batzuek bi astean behin joan behar izaten dute epaitegira edo polizia etxera sinatzera; beste batzuek bi egunetan behin (!). Eta hori, zazpi urtez. Halaber, Espainiako estatutik kanpo ateratzeko, aurrerapen handiz baimen berezia eskatu behar izaten dute. Eguneroko bizimodua eragotzita daukate, beraz, jada zazpi urtez...
- Denbora ez da, ez, alperrik pasatzen. Akusazioentzako ere ez da alperrik pasa denbora. Hori argi ikusi da pasa den asteko lekukotzetan. "Ez dut gogoratzen" izan da akusazioek lekuko modura deitutako polizien esaldi nagusia. Eta, normala da, bai, ez gogoratzea. Aznarren garaiko zaplasteko polizial-judizial batek ekarri gaitu hona, 2010era, 2003ko kontuekin.

Elkartasun eta salaketa ekimenei, berriro ere, mila esker eta segi aurrera!

- Balantzea egiteko orduan, ez ditugu aipatu barik utzi nahi Euskal Herrian eta hemendik kanpo ere abian ipini diren elkartasun eta salaketa ekimen instituzionalak, sozialak edo eta herritarrak:
 - Epaiketa hasi baino lehen eta epaiketa egunetan Udalbiltza aske! lelopean elkarretaratzeetan batu zireten pentsamendu askotariko hautetsi, hautetsi ohi eta herritarrak. Dozenaka herritan Babes Talde zabalak eratu dira, eta Udalbiltzaren inguruko auziaren gaia modu askotara landu: jaietan, ospakizunetan, kirol frogetan, hitzaldietan...
 - Tantaka-tantaka datorren udal mozioen olatua: Jada 50 baino gehiago dira Udalbiltzaren kontrako auzia modu formalean salatu duten udalak. Testu horiei bide eman dieten indar politikoak ere askotarikoak dira: hautetsi independenteetatik hasi eta Euskal Herria aintzat hartzen duten indar politiko guztiak egon dira mozio horiek bideratzen.

-Udalbiltza auziaren inguruko salaketa eta elkartasuna Gasteizko Parlamentura iritsi zen 2008an, aurtien Europako Parlamentura iritsi da. Nazio Batuen Erakunderako bidea ere hasi du.

-Euskal Herri osoko arlo guztietako 52 gizarte eragilek ere bat egin dute salaketa eta elkartasun manifestuan.

-Nazioarteko ordezkari instituzionalak eta juristak ere batu dira, eta auzia salatzeko bidea zabaltzen dihardute manifestu baten bidez.

-Katalunian eta Madrilen ere Babes Taldeak sortu dira. Madrilen, gainera, epaiketa egunetan auzipetuon bidelagun eta anaia-arreba ere bihurtu dira bertako taldeko kideak.

-Euskal Herriko 33 pertsona ezagunek Udaltzaria Elkartasuna ekimena plazaratu dute, eta beste hainbat pertsonalitatearen atxikimendua ere bildu dute, absoluzioa eskatuz. Pertsona hauen artean ere askotariko ideologiak batu dira, euskal abertzalego osoa eta PSE eta PSN ere bere baitan hartuz.

- Guzti guztiei, auzipetuon eskerrik beroenak berriro ere ematearekin batera, esan nahi diegu bide bat erakusten ari direla. Elkarlanaren eredu izaten ari direla. Hala bedi aurrerantzean ere, beste hainbat gairen inguruan.

IRAILEAN BERRIRO ERE ELKARTASUN ETA SALAKETAREN OLATUARI ERAGITEKO DEIA.

- Orain epaiketa etenda geratu da, irailaren 13ra arte. Atsedena behar dugu denok, bai auzipetuok eta bai herritar guztiek ere.
- Baina, herrietan, udaletan, Euskal Herrian eta hemendik kanpo ere, irailaren hasieratik berriro ere lanari ekiteko deia luzatu nahi dugu.
- Eta horretarako, lehenengo hitzorduak jada finkatuta utzi nahi ditugu, guztion egutegian gogora ditzagun:

-Oporren osteko lehenengo elkarretaratze isila: IRAILAK __, 12:00ETAN, DONOSTIAKO BULEBARREKO KIOSKOAN. Dei berezia egin nahi diegu bertaratu daitezen udal hautetsi eta hautetsi ohiei, baina baita herritarrei ere.

-IRAILAK 11, MANIFESTAZIO NAZIONALA BILBON, ADIERAZI EH HERRI EKIMENAK DEITUTA, ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN ALDE.

-Irailak 13, berriro ere abiatuko da epaiketa Madrilen, eta dei egiten dugu ahalik eta herri gehienean Udaltzaren Babes Taldeen ekimenak aurrera eramanez.

Denon artean, Udaltzaria aske!